

CNMVko erregistro-zenbakia: 2403

Kudeatzailea: CAJA LABORAL GESTION, S.G.I.I.C., S.A. **Bestorearen taldea:** CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CR **Auditorea:** PRICEWATERHOUSECOOPERS S.
Gordailuzaina: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CR **Gordailuzainaren taldea:** CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CR **Gordailuzainaren ratinga:** BBB+ (Fitch)
Konpartimentudun fondoa: Ez **Erregistro-data:** 2001/05/31ra

Txosten hau eta aldizkako azken txostenak bide telematikoen bitartez daude erabilgarri www.laboralkutxa.com
 Bezeroek IKE-ei buruz egiten dituzten kontsultak hemen argituko ditu erakunde gestoreak:

Helbidea: Jose Maria Arizmendiarieta, 5-3 20500 - Arrasate/Mondragón Guipuzcoa
Helbide elektronikoa: Fondosdelnversion@laboralkutxa.com

Telefonoa: 943790114

Era berean, bezeroarentzako arreta-departamentu bat duzu, kexak eta erreklamazioak bideratzeko. CNMVk ere inbertitzailearen Arreta Bulegoa jartzen dizu eskura, 902 149 200 telefono-zenbakian eta inversores@cnmv.es helbide elektronikoa.

1. Inbertsio-politika eta izendapen-dibisa

Kategoria

Fondo mota: % 10 baino gehiago beste fondo batzuetan inbertitzen duen inbertsio fondoa.
 Inbertsio-bokazioa: NAZIOARTEKO ERRENTA FINKOA.
 Arrisku-profila: 4 (1etik 7ra bitarteko eskala baten)

Deskribapen orokorra

Inbertsio politika: Kudeaketarako, erreferentzia gisa hartzen da adierazle honen errentagarritasuna: %55 BofA ML 3-5 Euro Government + %30 BofA ML Global Large Cap Corporate + %15 BofA ML Global High Yield. IKEen bitartez inbertituko da, bai zuzenean bai zeharka (%0tik %100era, eta, gehienez, %30 IKE harmonizatu gabeetan), errenta finko publiko zein pribatuko esposizio osoaren %100 (hor sartzen dira gordailuak, diru-merkatuko tresna kotizatuak eta kotizatu gabeak, izan likidoak eta izan titulizazioak); eta %20 ere inbertitu ahal da itzulera absolutuko IKEetan (merkatuaren bilakaerarekin loturarik ez dutenetan). Dibisaren arriskuaren esposizioa %0tik %100erainokoa izango da. Errenta finkoko jaulkipenen kalitatea, berriz, erdi mailakoa izango da (gutxienez BBB-), edo, txikiagoa bada, Espainiak uenez-uzenez duenaren parekoa izango da, eta, kasu horretan, guztizko esposizioaren %50 ere izan ahal da kalitate baxukoa (BBB- baino beheragokoa). Batez beste, 0 eta 7 urte bitarte iraungo dute, nahiz eta, tarteka-marteka, negatiboa izan ahal den -1 urtera bitartekoa. Jaulkitzaileak eta merkatuak batez ere OCDEkoak izango dira, eta esposizio osoaren %30 ere inbertitu ahal da gorabidean diren herrialdeetan. Urtean bi aldiz, partaidetzen nahitaezko ordainketak egingo zaizkie horien partaideei, urte bakoitzeko martxoaren 30ean eta irailaren 29an. Hain zuzen, azken ordainketa egunetik metatutako kupoen eta etekinen %75 eta %100 artean ordainduko zaie (atxikipenetatik garbi); horretarako, kontuan hartuko da martxoaren 31ko eta irailaren 30eko likidatze-balioaren gainean egin den azken ordainketa egunetik lortu den errendimendua. Zenbatekoa partaidearen kontu korrontean sartuko da hiru lanegun igaro baino lehen. Ondasunaren %35 baino gehiago inbertitu ahal da non eta Europar Batasuneko estatu kide batek, autonomia-erkidego batek, toki-erakunde batek, Espainia kide diren nazioarteko erakundeek eta Espainiakoa baino kaudimen-kalifikazio txikiagoa ez duten estatuek jaulkitako edo bermatutako balioetan.

Tresna deribatuetako eragiketak

Fondoak, konpromisoaren metodologia erabiliko du finantza tresna deribatuei dagozkien merkatu arriskua neurtzeko.

Deribatuen merkatu antolatuetan negoziatutako finantza-tresnekin jardun ahal izango da estaldura-eta inbertsio-helburuetarako, eta deribatuen merkatu antolatuetan negoziatzen ez diren finantza-tresnekin ere egin ahal izango dira eragiketak, estaldura- eta inbertsio-helburuetarako. Eragiketak egiteko modu horrek, baina, arriskuak ditu; izan ere, estaldura perfektua ez izatea gerta liteke, palanka-efektua eragiten dutelako eta konpentsazio-ganberarik ez dagoelako. Informazio-liburuxkak inbertsio-politikari buruzko informazio zehatzagoa jasotzen du.

Izendapen-dibisa

EUR

2. Datu ekonomikoak

2.1.a) Datu orokorrak (Akzioak)

Informazio eskuragarririk ez dagoenean, gelaxkak zuri ageriko dira

	Oraingo aldia	Aurreko aldia
Egungo partaidetza kopurua	60.093.143,13	53.517.011,83
Egungo partaide kopurua	13.318	12.245
Egungo partaidetzagatik banatutako mozkin gordinak (EUR)		
Gutxienezko inbertsioa (EUR)	1000	

2.1.b) Datu orokorrak (Ondarea/Likidazio-balioa)

Data	Aldiaren amaierako ondarea (Milaka EUR)	Aldiaren amaierako likidazio-balioa EUR (*)
Txostenaren aldia	418.566	6,9653
2019	407.918	7,6222
2018	322.178	7,1879
2017	255.775	7,5248

2.1.b) Datu orokorrak (Komisioak)

Aldian batez besteko ondarearen gainean kobratutako komisioak

Gestio-komisioa						Kalkulu-oinarria	Inputazio-sistema
Benetan kobratutako %-a			Metatua				
Aldia		Metatua					
ondarearen gain	emaitzen gain	Guztira	ondarearen gain	emaitzen gain	Guztira		
0,16		0,16	0,16		0,16	Ondarea	

Gordailuzain-komisioa		
Benetan kobratutako %-a		Kalkulu-oinarria
Aldia	Metatua	
0,02	0,02	Ondarea

2.1.b) Datu orokorrak (Biriketa/Errentagarritasuna)

	Uneko aldia	Aurreko aldia	Uneko urtea	2019 urtea
Zorroaren errotazio-indizea	0,23	0	0,23	0,20
Likidaziaren batez besteko errentagarritasuna (% eguner	0	0	0	0

OHARRA: Aldia hiruhilekoa edo seiuhilekoa izan daiteke, dagokionaren arabera. IKEaren likidazio-balioa egunero zehazten ez bada, azken datu erabilgarria hartuko da errentagarritasuna eta ondarea zehazteko.

2.2 Portaera

Informazio eskuragarri ez dagoenean, gelaxkak zuri ageriko dira.

A) Indibiduala

Errentagarritasun (% urteko Gabe)

	Metatua		Hiru hilean behingoa			Urteko			
	Uneko urtea	Azken Hiruhil.(0)	Hiruhil.-1	Hiruhil.-2	Hiruhil.-3	2019	2018	2017	2015
Errentagarritasun	-8,62	-8,62	1,06	0,62	1,39	6,04	-4,48	1,94	

Likidazio-balioak, eta beraz errentagarritasunak, ez du aintzat hartzen partaideari kobratu beharreko emaitzen gaineko gestio-komisioren eragina.

Muturreko errentagarritasunak (i)	Uneko hiruhilekoa		Azken urtea		Azken 3 urteak	
	%	Data	%	Data	%	Data
Gutxienezko errentagarritasuna (%)	-1,67	09-03-2020	-1,67	09-03-2020	-0,34	20-11-2018
Gehienezko errentagarritasuna (%)	1,04	25-03-2020	1,04	25-03-2020	0,28	31-01-2019

(i) Eskatutako aldiaren gutxienezko antzintasuna duten klaseetarako soilik jakinarazten da, eta betiere haren bokazio inbertitzailea aldatu ez bada.

Elkarren segidako bi likidazio-balioen arteko gehienezko eta gutxienezko errentagarritasunen berri ematen du. Likidazio-balioa egunean behin kalkulatzen da... Gogoratu aurreko errentagarritasunek ez dutela etorkizuneko errentagarritasunik bermatzen. Aldian inbertsio-politika homogeneoari eutsi bazaio soilik jakinarazten da.

Arrisku-neurriak (%)

	Metatua		Hiru hilean behingoa			Urteko			
	Uneko urtea	Azken Hiruhil.(0)	Hiruhil.-1	Hiruhil.-2	Hiruhil.-3	2019	2018	2017	2015
Hegakortasuna (ii):									
Likidazio-balioa	7,73	7,73	0,93	1,26	1,14	1,25	1,58	1,31	
Ibex-35	49,79	49,79	13,00	13,19	11,14	12,41	13,67	12,89	
Letra Tesoro 1 año	0,45	0,45	0,37	0,22	0,11	0,25	0,29	0,15	
BENCHMARK CL AVANT	0,00	0,00	8,82	7,55	3,49	6,10	1,93	1,67	
VaR historikoa (iii)	3,35	3,35	1,12	1,13	1,11	1,12	0,99	0,93	

(ii) Hegakortasun historikoa: balore batek aldi batean duen arriskua adierazten du; zenbat eta hegakortasun handiagoa, orduan eta arrisku handiagoa. Erreferentzia batzuen hegakortasuna ematen da konparazio gisa. Inbertsio-politika homogeneoa duten aldiatarako soilik ematen da hegakortasunari buruzko informazioa.


(iii) VaR historikoa: Hiltabeteen gehienez zenbat gal litekeen adierazten du, % 99ko konfiantza-mailarekin, IKEak azken 5 urteotan izan duen portaera errepikatuko balitz. Erreferentzia-aldiaren bukaerako datua da.

Gastuak (% s/batez besteko aktiboa)


Metatua	Hiru hilean behingoa		Urteko						
	Uneko urtea	Azken Hiruhil.(0)	Hiruhil.-1	Hiruhil.-2	Hiruhil.-3	2019	2018	2017	2015
	0,30	0,30	0,31	0,31	0,31	1,26	1,29	1,25	0,52

Erreferentzia-aldiaren egindako gastu zuzenak hartzen ditu barne: gestio-komisioa, gordailuzain-komisioa, auditoretza, banku-zerbitzuak eta gainerako gestio korronteko gastuak, aldioko batez besteko ondarearen gaineko ehunekotan. Funtzak / aktiboaren% 10 baino gehiago inbertituko duten beste funtsak ere barne dira sortutako zeharka inbertsioak, hala nola, harpidetza -tasak eta amortizazio barne eratorritako kostuak konpartimentu kasuan. Ratio honek ez du barne kudeaketa emaitza edo transakzio kostuak balore Negoziazio on kuota.

Grafikoa: azken 5 urteetan likidazioa balioa bilakaera



Grafikoa: Hiruhilekoen errentagarritasuna azken 3 urteetan



B) Konparazioa

Sozietate gestoreak gestionatutako fondoek erreferentzia-aldian izandako batez besteko errentagarritasuna ageri da ondoko koadroan. Fondoak inbertsio-bokazioaren arabera sailkatuta daude.

Inbertsio-bokazioa	Gestionatutako ondarea * (milaka euro)	Batez besteko partaide kopurua *	Batez besteko errentagarritasuna **
MONETARIOA			
EURO ERRENTA FINKOA	27.398	1.861	-0,46
NAZIOARTEKO ERRENTA FINKOA	470.473	14.636	-7,96
EURO ERRENTA FINKO MISTOA	366.231	8.881	-9,70
NAZIOARTEKO ERRENTA FINKO MISTO	45.709	3.501	-6,11
EURO ERRENTA ALDAKOR MISTOA	14.809	1.495	-14,69
NAZIOARTEKO ERRENTA ALDAKOR MISTO	526.920	11.299	-14,77
EURO ERRENTA ALDAKORRA	61.269	4.381	-23,32
NAZIOARTEKO ERRENTA ALDAKORRA	91.107	7.529	-17,17
ERREFERENTZIADUN GESTIOKO IKEA			
ERRENDIMENDU FINKOKO BERMATUA	559.540	22.440	-0,83
ERRENDIMENDU ALDAKORREKO BERMATUA	341.760	16.790	-1,21
BERME PARTZIALEKOA			
ETEKIN OSOA			
GLOBALA	30.849	563	-18,72
FMM Corto Plazo Valor Liquidativo Variable			
FMM Corto Plazo Valor Liquidativo Constante			
FMM Corto Plazo Valor Liquidativo Baja Variable			
FMM Estandar Valor Liquidativo Variable			
Renta Fija Euro Corto Plazo			
IIC Que Replica Un Indice			
IIC Con Objetivo Concreto De Rentabilidad			
Fondoak guztira	2.536.065	93.376	-7,90

* Batez bestekoak.

(1) Honako hauek hartzen ditu barne: indize bat erreproduzitzen duten IKEak, kotizatutako fondoak (ETF) eta bermatutako gabeako errentagarritasun-helburu jakineko IKEak.

** Inbertsio-fondo bakoitzak aldiaren duen batez besteko ondarearen gaineko batez besteko errentagarritasun haztatua.

2.3. Ondarearen banaketa aldiaren itxieran

(Zenbatekoa mila eurokotan)

Ondarearen banaketa	Uneko aldiaren amaiera		Aurreko aldiaren amaiera	
	Zenbatekoa	Ondarearen gaineko %a	Zenbatekoa	Ondarearen gaineko %a
(+) FINANTZA INBERTSIOAK	324.728	77,58	399.866	98,03
Barne Zorroa	48.946	11,69	74.135	18,17
Kanpo Zorroa	275.351	65,78	325.540	79,81
Inbertsio-zorroaren interesak	431	0,10	191	0,05
Inbertsio berankorrak, zalantzak edo auzipekoak				
(+) LIKIDAZIOA (ALTXORTEGIA)	77.421	18,50	6.874	1,69
(+/-) GAINERAKOAK	16.417	3,92	1.178	0,29
Ondare guztira	418.566	100,00%	407.918	100,00%

Oharra:

Aldia hiruhilekoa edo sei hilekoa izan daiteke, dagokionaren arabera.

Finantza-inbertsioei buruzko informazioa burutzapenaren balio zenbatetsian ematen da.

2.4. Ondare-aldaketaren egoera

	Batez besteko ondarearen gaineko %a			Aurreko aldiaren amaierarekiko aldaketa %-tan
	Uneko aldiako aldaketa	Aurreko uneko aldaketa	Urteko aldaketa metatua	
AURREKO ALDIAREN AMAIERAKO ONDAREA (milaka EUR)	407.918	372.723	407.918	
(+/-) Harpidetzak/Izulketak (garbia)	11,70	7,95	11,70	63,70
(-) Mozkin gordin banatuak				
(+/-) Etekin garbiak	-9,24	1,07	-9,24	-1.062,86
(+) Gestio-errendimenduak	-9,06	1,26	-9,06	-899,07
(+) Interesak	0,03	0,03	0,03	2,06
(+) Dibidenduak	0,25	0,39	0,25	-28,87
(+/-) Errenta finkoko emaitzak (gauzatuak edo ez)	0,36	-0,26	0,36	-254,46
(+/-) Errenta aldakorrek emaitzak (gauzatuak edo ez)	-1,24		-1,24	
(+/-) Gordailuetako emaitzak (gauzatuak edo ez)				
(+/-) Deribatuetako emaitzak (gauzatuak edo ez)	-1,19	0,59	-1,19	-322,42
(+/-) IKE-etako emaitzak (gauzatuak edo ez)	-7,28	0,52	-7,28	-1.668,87
(+/-) Beste emaitza batzuk	0,01	-0,01	0,01	-179,33
(+/-) Bestelako etekinak				
(-) Egotzitako gastuak	-0,19	-0,20	-0,19	6,64
(-) Kudeaketa komisioa	-0,16	-0,16	-0,16	9,80
(-) Gordailuzainaren Komisioa	-0,02	-0,03	-0,02	9,80
(-) Kanpo-zerbitzuengatik gastuak				-26,61
(-) Gestio arrunteko beste gastu batzuk				-4,50
(-) Egotzitako beste gastu batzuk		-0,01		-100,00
(+) Sarrerak				4,22
(+) IKEaren aldeko deskontu-komisioak				
(+) Ostera-lagatako komisioak				4,22
(+) Beste sarrera batzuk				
UNEKO ALDIAREN AMAIERAKO ONDAREA (milaka EUR)	418.566	407.918	418.566	

Oharra: Aldia hiruhilekoa edo sei hilekoa izan daiteke, dagokionaren arabera.


3. Finantza-inbertsioak

3.1. Finantza-inbertsioak burutzapenaren balio zenbatetsian (milaka eurokotan) eta ondarearen gaineko ehunekotan, aldiaren amaieran.

Inbertsioaren eta jaulkitzailearen azalpena	Dibisa	Oraingo aldia		Aurreko aldia	
		Merkatu-balioa	%	Merkatu-balioa	%
BONO D.ESTADO ESPAÑOL 1,95 2030-07-30	EUR	33.916	8,10	12.775	3,13
Urtebetetik gora kotizatutako zor publikoak guztira		33.916	8,10	12.775	3,13
KOTIZATUTAKO ERRENTA FINKOA GUZTIRA		33.916	8,10	12.775	3,13
REPO LABORAL KUTXA -0,45 2020-04-01	EUR	15.030	3,59		
REPO LABORAL KUTXA 2020-01-02	EUR			61.360	15,04
ALDI BATERAKO ESKURATURIKO AKTIBOAK GUZTIRA		15.030	3,59	61.360	15,04
ERRENTA FINKOA GUZTIRA		48.946	11,69	74.135	18,17
BARRUKO FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA		48.946	11,69	74.135	18,17
BONO UNITED STATES 2,25 2027-02-15	USD	13.930	3,33	12.602	3,09
BONO REPUBLICA DE ITALIA 1,35 2030-04-01	EUR	4.598	1,10		
Urtebetetik gora kotizatutako zor publikoak guztira		18.528	4,43	12.602	3,09
KOTIZATUTAKO ERRENTA FINKOA GUZTIRA		18.528	4,43	12.602	3,09
ERRENTA FINKOA GUZTIRA		18.528	4,43	12.602	3,09
PARTICIPACIONES PA DWS INV CONVERT	EUR	9.071	2,17		
PARTICIPACIONES PIMCO FUND EMERG M	EUR	18.986	4,54	9.034	2,21
PARTICIPACIONES PIMCO CAPITAL SEC	EUR	13.092	3,13	19.188	4,70
PARTICIPACIONES PIMCO CAPITAL SEC	EUR			17.569	4,31
PARTICIPACIONES SCHRODER ISF EUR DI	EUR	13.887	3,32	13.400	3,28
PARTICIPACIONES DB X-TRACKERS	EUR	14.213	3,40	14.185	3,48
PARTICIPACIONES JPM EUR STRAT DIV	EUR			1.593	0,39
PARTICIPACIONES HSBC EUR HYLD BON IC	EUR	1.456	0,35	6.680	1,64
PARTICIPACIONES HSBC EUR HYLD BON IC	EUR	1.884	0,45	7.963	1,95
PARTICIPACIONES MORGAN STANLEY	EUR	1.764	0,42	1.886	0,46
PARTICIPACIONES ABERDEEN EM INFR.Y2	EUR	11.769	2,81	12.865	3,15
PARTICIPACIONES FRANKL IND F ACC	EUR	18.623	4,45	17.876	4,38
PARTICIPACIONES PIMCO CAPITAL SEC	EUR	17.749	4,24	18.225	4,47
PARTICIPACIONES DEUTSCHE	EUR			17.938	4,40
PARTICIPACIONES BGF EMERGING MARKETS	EUR	8.129	1,94	9.242	2,27
PARTICIPACIONES FIDELITY ASEAN	EUR	4.341	1,04	3.674	0,90
PARTICIPACIONES NORDEA BANK AD	EUR	13.122	3,14	17.713	4,34
PARTICIPACIONES SCHRODER ISF EUR DI	EUR			4.337	1,06
PARTICIPACIONES PIMCO GLOB INV	EUR			3.851	0,94
PARTICIPACIONES BGF-EURO MARKETS FUN	EUR	9.186	2,19	9.890	2,42
PARTICIPACIONES INVERSCO IND E****	EUR	8.733	2,09	9.941	2,44
PARTICIPACIONES MS EMERGING	EUR	9.825	2,35	10.535	2,58
PARTICIPACIONES MS EMERGING	EUR	9.744	2,33		
PARTICIPACIONES ABERDEEN GLOB A2 **	EUR			8.272	2,03
PARTICIPACIONES BNY MELLON GLOBAL DY	EUR	8.005	1,91	7.233	1,77
PARTICIPACIONES LAZARD	EUR	11.966	2,86	16.062	3,94
PARTICIPACIONES AMUNDI	EUR	18.844	4,50	18.655	4,57
PARTICIPACIONES THREADNEEDLE	EUR	18.771	4,48	18.794	4,61
PARTICIPACIONES M&G EUROP STRAT	EUR	7.389	1,77	7.178	1,76
PARTICIPACIONES SCHRODER ISF EUR DI	EUR	5.822	1,39	6.911	1,69
PARTICIPACIONES ARCANO CAPITAL	EUR			2.246	0,55
IKE-AK GUZTIRA		256.371	61,27	312.936	76,69
KANPOKO FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA		274.899	65,70	325.538	79,78
FINANTZA INBERTSIOAK GUZTIRA		323.845	77,39	399.673	97,95

Dharrak: Aldia hiruhilekoaren edo seiuhilekoaren amaiera izan daiteke, dagokionaren arabera.

3.2. Finantza-inbertsioen banaketa aldiaren itxieran: Ondare osoaren gaineko ehunekoa



3.3. Deribatuetako eragiketak. Aldiaren amaieran irekitako posizioen laburpena (zenbatekoa mila eurokotan)

azpikoa	Instrumentua	Zenbateko nominal konprometitua	Inbertsioaren helburua
BO. US TREASURY NOTE 280221	V/ Fut. FU. US TNOTE 5 200601	86.255	Inbertsioa
BO. US TREASURY NOTE 150824	C/ Fut. FU. US TNOTE 10 200601	29.425	Inbertsioa

azpikoa	Instrumentua	Zenbateko nominal konprometitua	Inbertsioaren helburua
BO. ESTADO ALEMAN 1,00% 250815	V/ Fut. FU. EURO BUND 200608	72.286	Inbertsioa
Errenta finkoa azpikoa guztira		187.966	
OBLIGAZIOAK GUZTIRA		187.966	

4. Gertaera garrantzitsuak

	Bai	Ez
a. Harpidetza/errenboltoak aldi baterako etetea		X
b. Harpidetza/errenboltoak berriz abiatzea		X
c. Ondare-errenbolto esanguratsua		X
d. Ondarearen % 5etik gorako zorpetzea		X
e. Sozietate gestorea ordezea		X
f. Erakunde gordailuzaina ordezea		X
g. Sozietate-gestorearen kontrola aldatzea		X
h. Informazio-liburuxkaren funtsezko elementuak aldatzea		X
i. Fusio-prozesua baimentzea		X
j. Beste gertaera garrantzitsu batzuk		X

5. Gertaera garrantzitsuak azaltzeko eranskina

Ez aplikagarria.

6. Lotutako eragiketak eta beste informazio batzuk

	Bai	Ez
a. Fondoaren ondareko partaide esanguratsua (% 20tik gorako ehunekoa)		X
b. Garrantzi txikiko aldagetak Araudian		X
c. Gestorea eta gordailuzaina talde berekoak dira (Balore Merkatuari buruzko Legearen 4. artikulua arabera)	X	
d. Baloreak erosi edo saltzeko eragiketak egin dira eta gordailuzaina saltzailea edo eroslea izan da, hurrenez hurren	X	
e. Gestorearen edo gordailuzainaren taldeko erakunderen batek jalki edo abalaturako baloreak edo finantza-tresnak erosi dira, edo erakunde hori merkaturatzailea, aseguratzailea, zuzendaria edo aholkularia izan da, edo lotutako		X
f. Baloreak edo finantza-tresnak erosi dira, eta horien kontrapartida gestorearen edo gordailuzainaren taldeko erakunde bat izan da, gestore berak gestionatutako IKE bat edo taldeko beste gestore bat		X
g. Gestorearen taldeko erakundeek sarrerak jaso dituzte eta horien jatorria IKEak ordaindutako komisioak edo gastuak dira		X
h. Lotutako beste informazio edo eragiketa batzuk		X

7. Lotutako operazioen gaineko eranskin esplikatiboa eta ohartarazpenak

Hiruhilekoan zehar berrerosteko hitzarmena duten eragiketak gauzatu dira entitate gordailuzainarekin, 703,5 milioi eurokoak erosketa-kontzeptuan (batez besteko ondarearen % 162,02), eta 749,9 milioi eurokoak salmenta-kontzeptuan (ondarearen % 172,69).

8. CNMVK agindutako informazio eta ohartarazpenak

Ez aplikagarria.

9. Aldizkako txostena azaltzeko eranskina

1. MERKATUEN EGOERA ETA FONDOAREN BILAKAERA

a) Gestoreak merkatuen egoerari buruz duen ikuspegia

Hasiera batean oso toki zehatz batean (Txinaren erdi-ekialdean) kokatu zen osasun-krisia mundu osoko pandemia bilakatu da, eta, urteko lehen hiruhilekoko finantza-aktibo bilakaeran eragiteaz gain, munduan harremanak izateko modua ere baldintzatu du. Koronabirusaren ondoriozko COVID-19 gaixotasuna hain azkar zabandu da planetan, ezen gobernu ugari milioika pertsona konfinatzea agindu dute martxoan, dekretuz. Ondorioz, inoiz ikusi den geldialdirik handiena gertatu da munduko ondasunen eta zerbitzuen ekoizpen-katean, eta urterako aurreikusita zeuden hazkunde ekonomikoak sekula ezagutu ez diren kopuruetara erori dira, nahiz eta 2019aren itxierako datuetatik nolabaiteko egonkortasuna iragartzen zuten. Horrela, bada, munduko 2020rako BPGd-aren bilakaera-aurreikuspenak hiruhilekoaren hasieran % 3 inguru haztetik % 1etik behera amildu dira hilabete eskasean; hau da, askoz okerragoak izan dira 2009an burbuila finantzarioak eztanda egin osten jasotako kopuruak baino. Martxoko sentimenduaren datuetan erregistratu da, dagoeneko, urtearen bigarren hiruhilekoan ikusiko dugun jardueraren beharadako. Mundu osoko gobernuak eta diru-agintariak aurrekaririk gabeko neurriak ari dira hartzen, COVID-19aren eraginei aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloetan. Estatu Batuetako Erreserba Federalak, adibidez, interbentzio-tasa % 1,75etik % 1,25era jaitsi du, martxoan. Europako Banku Zentralak (EBZk), bere aldetik, 750.000 milioiko aktiboak erosteko programa abiarazi du, gobernuari beren sustapen-planak tasa txikietan finantzatzea bermatzeko.

Banku zentralen esku-hartzeen ondorioz, aktibo monetarioen tasak baldintzatuta daude: eurogunean oso maila txikietan etsi zaie eta Estatu Batuetan oinarritzko 125 puntutik gora murriztu dira. Egoera horren eraginez, interes-tasek minimoetan jarraituko dute munduan, eta eurogunean bereziki.

Eurotako gobernu-zorra oso txikia izan da hiruhilekoan, nahiz eta hegakortasuna muturrera iritsi den. Europan, Italian sumatu genituen COVID-19aren lehen zantzuak. Gobernuak gastu publikoa handitu behar izan zuen, gaitzaren eraginei eusteko. Defizita eta zor-maila handitzea ekarri zuen horrek, eta, ondorioz, 2 urterako tasak % 3 ingururaino iritsi zaizkio. EBZren erantzuna azkarra izan zen: estatu kideen finantzaketa bermatu zuelarik, % 1,50 ingurura itzuli zuen Italiako zor-tasa. Bestalde, Espainiako zorrean ere eragin nabarmena izan du COVID-19ak: 2 urterako tasa %0,10era iritsi da -%0,50etik. 10 urterako bonuek % 1,30etik gorako kotizazioa lortu zuten, hiruhilekoaren hasieran baino oinarritzko 100 puntu handiagoa.

Kreditu-kalitate handiko eurotako bonu korporatiboek portaera negargarria izan dute hiruhilekoan, martxoan jarduera ekonomikoak jasandako geraldiki zakarraren eraginez. Horrenbestez, finantzaketa-tasa oinarritzko 150 puntu handitu da, eta % 6 inguruko erorikoak eragin ditu bonuen prezioan.

Kalitate okerragoa duen eurotako High Yield zor korporatiboak ere galera handiak izan ditu (% 14tik gorakoak), urtearen lehen laurdenean oinarritzko 500 punturaino hazi baita barne-errendimenduaren tasa (BETA), % 10etik gorako kotetara heltzeraino.

b) Inbertsioari buruz hartutako erabaki orokorrak

Fondoak hauetan inbertitu du: inbertsio-fondoetan eta errenta finkoko ETFetan. Epealdi honetan, % 45eko esposizioa izan da inbertsio-graduak errenta finko pribatuan, % 5ekoa High Yieldean eta % 15ekoa garatzeko bidean dauden merkatuetan.

c) Erreferentzia-indizea

Epealdian, fondoaren errentagarritasuna txikiagoa izan da Espainiako urtebeterako Altxorraren letrarena baino. Era berean, fondoaren benchmarkarena baino txikiagoa izan da; -% 4,592 txikiagoa, hain zuzen.

d) Inbertsio Kolektiboko Erakundearen (IKEaren) ondarearen, partaideen, errentagarritasunaren eta gastuen bilakaera

Aldi honetan, +1.073 partaideko aldakuntza izan du fondoak, eta -% 8,619ko errentagarritasun garbia. Horrenbestez, epealdia ixtean, 10.648 mila euroko aldakuntza izan da ondarean, eta, beraz, 418.566 mila eurokoa da orain. Amerikako 5 urterako bonuaren gerokoetako posizionamendua izan da errentagarritasun-eragile

nagusia. Fondoak egindako gastuek % 0,30eko eragina izan dute berorren errentagarritasunean. Horrez gain, % 0,116ko gastu gehigarria egon da, beste IKE batzuetan egindako inbertsioagatik. Epealdia ixtean, ondarearen % 59,900 dago IKE-etan inbertituta.

e) Fondoaren errendimendua gestorearen gainerako fondoekin alderatuta

Gestorearen batez bestekoa (-% 6,582koa) baino errentagarritasun txikiagoa eman du fondoak.

2. INBERTSIOEI BURUZKO INFORMAZIOA

a) Epealdian egindako inbertsioak

2030eko uztailleko Espainiako bonuak daude epealdiko erosketa nagusien artean.

b) Baloreak mailegatzeko eragiketak
N/A

c) Deribatuetako eragiketak eta aktiboen aldi baterako eskurapena

Tresna deribatuekin egindako eragiketek doikuntza izan dute helburu, unean uneko inbertsio-tarteak fondoaren inbertsio-politikan zehaztutako mugen barruan egon daitezten. 7. eranskinean adierazi denez, aktiboen aldi baterako eskurapenak egin dira. Batez besteko palanka-efektua % 59,716koa izan da.

d) Inbertsioei buruzko bestelako informazioa

Likideziak % 0ko ordainketa jaso du kontu korrontean, eta merkatu-tasakoa egun 1erako repoan. Fondoak % 50eraino inbertitu ahal izango du kreditu-kalitate txikiko aktiboetan, edo, txikiagoa bada, Espainiako Erresumak unean-unean duenean.

3. ERRENTAGARRITASUN-HELBURU ZEHATZAREN BILAKAERA

N/A

4. FONDOAK BEREGANATUTAKO ARRISKUA

Fondoak % 7,73ko arriskua bereganatu du. Hori neurtzeko, epealdiko eguneko likidazio-balioaren hegakortasun urtekotua hartu da kontuan. Urtebeterako Altxorraren letrek % 0,451ko hegakortasuna izan dute epe berean, eta lbex35ak % 49,790ekoa. Fondoaren azken 5 urteetako hileko VaRa % 3,35ekoa izan da.

5. ESKUBIDE POLITIKOAK ERABILTZEA

N/A

6. INFORMAZIOA ETA CNMV-REN OHARTARAZPENAK

N/A

7. ELKARTASUN-FONDOAREN ERAKUNDE ONURADUNAK ETA EMAN ZAIEN ZENBATEKOA

N/A

8. ANALISI-ZERBITZUAREN ONDORIOZKO KOSTUAK

Fondoak ez du gasturik izan inbertsioen gaineko finantza-analisirako zerbitzuaren ondorioz. Gestoreak prozedura zehatzak ditu bitartekariak aukeratzeko exekuziorik onenaren printzipioa betetzeko, eta haien bidez burutu dira IKEaren eragiketak.

9. ASMO JAKIN BATERAKO KONPARTIMENTUAK

N/A

10. MERKATUAREN AURREIKUSPENAK ETA FONDOAN ESPERO DEN JARDUKETA

Banku zentralen esku-hartzeak zorrari erantzun beharko lioke. Horrek interes-tasa minimoen agertokira garamatza eta oztopatu egiten du epe laburrerako bonuen merkatuan irabaziak lortzea, hala dolarretan nola (batez ere) eurotan.

Gauzak horrela, zaila da interes-tasen beherakadek errealizazioak ekartzea, bai eurogunean eta bai Estatu Batuetan; horregatik dugu posizio mugatua gobernu-zorreetan eta horregatik eutsi diogu interes-tasaren arriskuari benchmarkaren azpian.

Kreditu-kalitate handiko eurotako zor-merkatuaren erakargarritasuna nabarmen handitu bada ere, zuhurak izaten jarraitzen dugu datozen hilei begira, oraindik ere zalantzaz josita dagoen agertokian.

Kalitate kaskarragoa duten eurotako bonu korporatiboak erakargarriak izaten hasi dira, % 9tik gorako errentagarritasunekin. Halere, horien bilakaera onak kalteak jasango ditu, baldin eta jardueraren etenak konpainien kaudimenari eragiten badio eta porrot-kopurua handitzen bada. Momentuz, zuhur jarraitzen dugu, eta nahiago dugu garatzeko bidean dauden gobernuetako zorreetan dibertsifikatzea arriskua.

Zalantzak gorabehera, gure ustez, datozen hiru hilekoetan positiboa izango da fondoaren errentagarritasuna.

10. Ordainsari politikari buruzko informazioa

Inbertsio Kolektiboko Erakundearen urteko txostenean jasoko da ordainsari-politikei buruko informazioa, Inbertsio Kolektiboko Erakundearen 2003ko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 46 bis artikuluan finkatutakoaren arabera.

11. Balore finantzarioen eragiketen inauruko informazioa. bermeen berrerabiloena eta itzulera osoaren trukeak (2015/2365 EBko araudia)

Baloreak finantzatzeko eragiketak egin dira LABORAL Kutxarekin, 7. eranskinean azaltzen denez. Ez da egin bermeak berrerabiltzeko eragiketarik edo guztizko errendimenduko swapik.